

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Urdaibai

Padurako ikerlariak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Natur zientziak

1,5 h inguruko irteera honetan, padura gure laborategi bihurtzen da aire librean. Ibilbidean zehar, ekosistema paregabe honetan murgilduko gara begirada zientifiko batekin. Espazio natural dinamiko horretan gertatzen diren aldaketak identifikatu, aztertu eta behatuko ditugu. Ekoetxea Urdaibaira ordubetez egingo dugun bisita ahaztu gabe. Erakusketetan zehar ibiliko gara eta ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak modu jasangarriagoan erabiltzeko beharrezkoa dena ikasiko dugu. **Izan ere, ekosistema bat zaintzeko, lehendabizi ulertu egin behar da.**